EBAZPENA, 2026ko urriaren 20koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2025-2026 ikasturtean zerbitzuak eman dituzten ordezko lan-kontratudun hezitzaileen prestasunagatiko eta mugikortasunagatiko konpentsazioa aitortzen duena.

Hezkuntza Sailaren mendeko Lan-kontratudun Irakasle eta Hezitzaileen Hitzarmen Kolektiboaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera (2025-11-06ko EHAA), ordezko lan-kontratudun hezitzaile guztiek konpentsazio ekonomiko bat jasoko dute, baldin eta ikasturte batean gutxienez 165 egun naturaletan zerbitzuak eman badituzte eta lanean aritu ez diren aldietan lanerako prest egon badira.

Bestalde, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.), 11.2 artikuluaren d) apartatuan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari esleitzen dio, oro har, langileen nomina kudeatzea eta kontrolatzea.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta eman zaizkidan eskumenekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Ordezko lan-legepeko hezitzaileei konpentsazio ekonomikoa aitortzea, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Ordezkapenengatiko bitarteko lan-modalitatean lan egin izana.

RESOLUCIÓN de 20 de octubre de 2026, del Director de Gestión de Personal, por la que se reconoce el abono de la compensación a la disponibilidad y movilidad de personal laboral educativo sustituto que haya prestado servicios durante el curso 2025-2026

De conformidad con lo establecido en el Anexo III del Convenio Colectivo del Personal Laboral Docente y Educativo dependiente del Departamento de Educación (BOPV 06-11-2025), todo personal laboral educativo sustituto que haya prestado servicios en un curso escolar durante un período de al menos 165 días naturales y haya estado en situación de disponible en los periodos en los que no hubiera estado ocupado percibirá una compensación económica.

Por su parte, el Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, (BOPV nº 235, de 3 de diciembre de 2024), por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, en el apartado d) de su artículo 11.2, atribuye a la Dirección de Gestión de Personal en general, La gestión y el control de la nómina del personal.

En virtud de cuanto antecede y de conformidad con las competencias que me han sido conferidas

RESUELVO:

Primero.– Reconocer una compensación económica y su correspondiente abono al personal laboral educativo sustituto que cumpla las siguientes condiciones:

– Haber trabajado en la modalidad de trabajo interino por sustitución.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8RP6-ETCH
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: UNAI NIETO MARIJUAN | 2026/10/19 14:14:52

– Ordezkagunearen esleipenetan ohikotasunez parte hartu izana. Ulertuko da betekizun hau ez dela betetzen baldin eta 50 egun balioduneko epean egon bada ordezkagunean parte hartu gabe ordezkagunea martxan egon den bitartean, justifikatutako arrazoirik gabe. Justifikatutako egoerak izango dira, besteak beste, gurasotasunari lotutako egoerak, ezintasunak, senideak zaintzea... etab.

– Participación habitual en la adjudicación de Ordezkagunea. Se entenderá que no se cumplemeste requisito cuando en el plazo de 50 días hábiles no haya participado en el mismo sin causa justificada durante el tiempo de funcionamiento del mismo. Tendrán la consideración de situaciones justificadas las relacionadas con la paternidad, las incapacidades, el cuidado de familiares, etc.

Konpentsazio ekonomiko hori baremo honen arabera kalkulatuko da:

165 eta 192 egun bitartean lan eginda: 6 egun.
193 eta 220 egun bitartean lan eginda: 7 egun.
221 eta 248 egun bitartean lan eginda: 8 egun.
249 eta 275 egun bitartean lan eginda: 9 egun.
276 eta 300 egun bitartean lan eginda: 10 egun.

Eguneko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko soldata gordina hartuko da erreferentziatzat,
Eta proportzionalki zenbatuko da, lan egindako denboraren eta lanaldi-modalitatearen arabera. Konpentsazio horretarako, ez dira zenbatuko kalte-ordaina jaso duten lan egindako aldiak.
Konpentsazio horrek ez du ekarriko Gizarte Segurantzan alta ematea, eta ez dira zenbatuko hautagai-zerrendetan. Ez dute oporrik sortuko, ezta aparteko ordainsariari dagokion ordainketarik ere.

Dicha compensación económica se calculará de acuerdo al siguiente baremo:

De 165 a 192 días trabajados: 6 días.
De 193 a 220 días trabajados: 7 días.
De 221 a 248 días trabajados: 8 días.
De 249 a 275 días trabajados: 9 días.
De 276 a 300 días trabajados: 10 días.

La cuantía diaria se calculará tomando como referencia el salario bruto mensual y computándose proporcionalmente en función del tiempo trabajado y de la modalidad de jornada. A estos efectos no se computarán los períodos trabajados que hayan sido objeto de indemnización.
Esta compensación no supondrá alta en la Seguridad Social ni computará en las listas de candidatos y candidatas. No devengarán vacaciones ni pagos correspondientes a la paga extraordinaria.

Bigarrena.– Kalkulua egiteko, 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra bitarteko aldia hartuko da kontuan.

Segundo.– El cálculo se realizará tomando el periodo trabajado entre el 1 de septiembre de 2025 y el 31 de agosto de 2026.

ERREKURTSOAK

RECURSOS

Ebazpen honen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezake Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Contra la presente Resolución podrá interponerse por la persona interesada recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren data-orduan
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
Director de Gestión de Personal

UNAI NIETO MARIJUAN